

Gida didaktikoa Erakusketa


CANCELLER
AYALA
VI. Mendeurrena
VI Centenario



Aiala Kantzilerra



Gida honen asmoa Erdi Aroko historia eta artea ezagutaraztea da, era didaktiko eta parte hartzaile batean. Horretarako, artelan jakin batzuk aztertu ditugu, horiei errepara diezaiozuen.

Gidak pieza horien gaineko datuak eskaintzen dizkizu, esate baterako, horien historia, egilea, teknika, esanahia... Baina, gainera, jarduera batzuk eskaintzen dizkizugu artelanaren aurrean lantzeko, baita erakusketara etorri aurretik zein ondoren.

Erakusketa hau ahalik eta gehien goza dezazun...

- **Ikusi** artelanak zehatz-mehatz, eta beharbada begiratu baten ikusten ez diren gauzak deskubrituko dituzu.
- **Elkar trukatu** iritzia. Horrela ikuspuntu zabalagoa eta osatuagoa izango duzu, artelanek hainbat irakurketa dute eta.


Gogoratu...

... artelan hauek 600 urte inguru dute. Museoetan eta beste erakunde batzuetan egon dira, eta horregatik heldu zaizkigu gaur arte. Zain ezazu zure ondarea.

PEDRO LOPEZ DE AIALA, AIALA KANTZILERRA

Gasteizen jaio zen, 1332 aldera, noble familia batean. Heziketa zaindua izan zuen Toledon eta Avignonen, bere osaba txiki Barroso Kardinalaren ondoan. 20 urte egin baino lehen, Gaztelako Gortearen zerbitzura hasi zen, eta han jardun zuen bizitza osoan. Kargu politiko garrantzitsuak bete zituen, besteak beste, Gasteizko eta Toledoko Alkate Nagusi, Arabako eta Gipuzkoako Merio Nagusi eta Gaztelako Kantziler Nagusi. Calahorran hil zen, 1407. urtean.

Kantzilerraren sinadura



Leinua

Fernan Perez de Aialak, Kantzilerraren aitak, Aiarako Jaurerria heredatu zuen eta Kexaara joan zen bizitzera 1330 aldera.

Bere boterearen bitartez, jaurgoa era nabarmen batean handitu zuen, eta ondasunak ez zatitzearen 1373. urtean maiorazkoa fundatu zuen; horren bitartez, pertsona bakar batek jasoko zituen ondasun guztiak herentzian.

Maiorazkoaren oinordekoa seme nagusia izan zen, Aiala Kantzilerra.

Diplomatikoa eta politikoa

Gaztelako errege-erreginen konfiantzazko gizona izan zen eta goi mailako karguak bete zituen; horien bitartez bitartekari lanak egin zituen Europako gatazketan eta eragin handia izan zuen bere garaiko politikan.

Zalduna

Hainbat gatazka armatutan parte hartu zuen, ohikoak XIV. mendean.

Birritan egin zuten preso: Naiarako borrokan (bi errege aurrez aurre Gaztelako tronua eskuratzearen) eta Aljubarrotako borrokan (Gaztela eta Portugalgo gerra zela-eta).

Idazlea

Letragizona izan zen, kulturaduna eta intelektuala. Bizitzan zehar, literatur lan mardula egin zuen.

Hainbat erregeren Kronikak idatzi zituen, garaiko ikuspuntu politikoa eta soziala eskainiz. Garaiko pentsamenduko lan garrantzitsuak itzuli zituen. Poema liburu bat ere idatzi zuen: *Libro Rimado de Palacio*, bere obrarik pertsonalena.



Leonor de Guzman y Mendoza

1360. urtean Leonorrekin, familia nobleko emakume batekin, ezkondu zen. Kantzilerra kanpotik zela, Leonorrek administratu zituen maiorazkoko ondasunak eta Jaurerriko interesak defendatu zituen; Araba eta Bizkaiko jaunei ere egin behar izan zien aurre. Senarrarekin batera, artea patrozinatu zuen Kexaan.

TUESTAKO ANDRE MARIA EDO AMA ZURIA

Umea daraman Ama Birjina honek kultua du Tuestako Jasokundearen elizan, eta aldarearen ondoan dago.

Mendeetan, beste toki batzuetan egon izan da elizan bertan. Ziurrenik, erretaula berria egin zenean XVI. mendean, zegoen tokitik beste batera eraman zen, eta 1669. urtean badakigu fededunek Ama Birjina gurtzen zihardutela, izan ere, hau xe irakur dezakegu Kofradiaren Kontuetan:

«...*la Ymagen de la Virgen que esta enzima de la puerta de la sacristía que es la Antigua y con quien se tiene la devozion*»

Erretaulak bezala, elizetan egoten diren Kristo, Ama Birjina eta santuak, fededunei zuzendutakoak sinesmen batzuk transmititzeko sortu ziren, debozio bat inspiratzeko, baina baita sentimendu jakin batzuk azaleratzeko.



Tuestako eliza barrutik

Ama Birjinarenganako debozioa oso errotuta dago herrian, eta horrela izan da kristautasuna sortu zenetik. Erdi Aroan garrantzia berezia hartu zuen.

Garai horretan ikonografiarik errepikatuena, hau da, irudirik ohikoena, Umea zeraman Andre Maria eseria zen. Hemen *Andra Mari* esaten zaio.

Artistek alde aurretik finkatuta zeuden erduen arabera lantzen zituzten Andre Marien imajinak, ereduok oso zabaldua baitzeuden irudien bitartez; horregatik Andre Maria askok antza dute.

Imajina gehienak egurrean lantzen ziren, in-txaurrondo edo haritz egurrean.

Aizkorarekin arbastatutako eta hustutako enbor batean egiten zen tailua. Eta gero, hainbat tamaina eta formatako gubia eta arrasparekin lantzen ziren.

Polikromiaren prozesua hasteko, egurra iztuku geruza fin batekin estaltzen zen, eta bola ematen zitzaion (urre edo zilar xaflen oinarri gisa erabiltzen den buztin antzeko bat). Urrearen gainean arrautza-tenplea ematen zen, tailua dekoratuz.

IKUSI ETA OHARTU

- Ama Birjinaren aurpegia oso atsegin da, begi zabalak eta irribarrea du. Eder-tasun gotikoaren prototipoa da.
- Formak naturalistak dira eta egoerak leunak. Errepara iezaiezu mantuak erortzean egiten dituen tolesdurei: batzuek V forma dute eta beste batzuk bertikalak dira.
- Koloreak era orekatu batean konbinatu dira: gorria, urdina, zuria eta urre kolorea.

KONPARATU ETA IKERTU

- Bilatu erakusketan Ama Birjinaren beste eskultura batzuk, zutik ala eserita daude?, zer adierazten dute aurpegierek?, zer darama eskuan *Mirabetzaren Ama Birjinak?*, zer darama sabelean *Burinondoko Andre Mariak?*
- Bisitatu eliza moderno bat (1965. urteaz geroztik egindakoa) eta konpara ezazu antzinako batekin. Imajina asko edo gutxi dago?, erretularik badago?, zein imajina aurki dezakezu?

TUESTAKO ANDRE MARIA EDO AMA ZURIA

Anonimoa. XIV. mendearen lehenengo erdialdea. Egur landua, urreztatua eta polikromatua
130 x 58 x 47 cm. Tuestako Jasokundeko Ama Birjinaren eliza. Araba

Ziurrenik, **sagar** bat eramango zuen, Evaren jatorrizko bekatuaren sinbolo gisa. **Maria Eva Berria** da, gizateria salbatuko duen Umearen ama. Edo izan liteke **lore** bat eraman izana, fruitua, hau da, Umea, ematen duen Ama Birjinaren sinbolo gisa

Ama Birjinak koroa darama, *Zeruetako Erregina* delako. Jatorrizko koroa egurrean landuta zegoen, eta horren orde zilarrezko bat jarri zitzaion, gaur egun galdua

XIII. mendeko frantses modaren arabera jantzita dago. Mantua uhdun segurtagailu batekin lotzen da, paparretik behera eroriz

Tunika luzea, gerriko batekin estututa eta lepoan fibula batekin lotuta

Erdi Aroko beste tailu batzuetan bezala, tunika motibo geometrikoekin dekoratuta dago: zerranda horizontalak eta erronboak angelu okerrekin

Umea bedeinkatzen ari da, Trinitatearen sinbolo diren hiru atzamar altxatuta: Aita, Semea eta Espiritu Santua. Ezkerreko eskuan Ebanjelioen liburu darama



Garaiko erreginak bezala, tronuan eserita dago: kuxin bat daraman jesarleku soil bat da

Kuadrifolia

Gaztela eta Leongo armarrria

IHURREKO ERRETAULA

Erretaula hau Ihurreko Santiago parrokiatik dator eta Euskal Herriko zaharrena da. Erretaula horien lanketa inbertsio garrantzitsua zen elizarako eta fededunentzat.

Gaur egun elizaren albo nabe batean dago, baina jatorrian burualdean kokatuta egon zen, aldarearen atzean, holako artelanetan ohikoa zen bezala.

Artelanak aldaketa garrantzitsuak jasan ditu mendeetan: Erdialde guztia eta Ama Birjinaren Umea galdu ditu, eta berriz polikromatu zen 1500. urtean. Gainera, 1989. urtera arte atek alderantziz zeuden. Urte horretan pieza zaharberritu egin zen eta sortu zenean izan zuen itxura eman zitzaion berriro.



Jaiotza

Erretaulak altzari liturgikoak dira eta hainbat funtzio betetzen dute. Tenpluak edertzeaz gain, santuen benerazioa areagotzeko balio dute. Baina funtziorik garrantzitsuena didaktikoa da, bertan irudikatutako istorioen bitartez fedea erakusten zitzaielako fededunei. San Gregoriok esan zuen bezala: *«irakurtzen ez dakienak, irudietan aurkitzen du liburuetan ikasi ezin duena»*.

Erretaula honetan kontatutako istorioak Ama Birjinaren bizitzaren eta Jesusen haurtzaroren pasarte garrantzitsuak dira.

Ixten den poliptikoa da erretaula hau: bisagrekin lotutako hainbat ohol dira, eta horiek itxi egiten ziren barruan Ama Birjinaren irudia gordez.

Erretaulak kale bertikaletan eta atal horizontaletan antolatzen dira. Honek lau kale eta hiru atal ditu.

Egurrean egiten ziren; eskultoreek lantzen zituzten eta pintoreek eta erreztatzaileek polikromatzen zituzten. Ihurrekoa esaterako. Baina pintatutako erretaulak ere bazeuden; horietan, erliebeen ordez pintatutako oholak jartzen ziren.

IKUSI ETA OHARTU

- Eszenak arkitektura gotiko batean daude, leihoeekin, hiru lobuludun arkuekin eta zutabe finekin.
- Errugabeen Hilketaren eszenan, soldaduak XIV. mendeko militarren antzera doaz jantzita.
- Herodes pertsonaia «gaiztoa» da Ebanjelioetan, horregatik darama deabrua buru gainean. Holako eszena bakarra da Araba osoan.
- Ama Birjinaren arimak haurtxo forma du.

KONPARATU ETA IKERTU

- Erakusketan zilargintza lan batzuk daude ixten den erretaula formarekin, zein dira?, zein teknika eta material erabili dira egiteko?
- Bilatu erretaulak Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoan, handiagoak edo txikiagoak dira?, zenbat atal eta kale dituzte?, zein santu azaltzen dira? (bilatu material didaktikoa).
- Gaur egun erretaulek lehengo funtzio berdinak betetzen dituzte?
- Bilatu Biblian eta beste liburu batzuetan, erretaula hauetan kontatzen diren eszenak. Artistak bezala imajinatzen al dituzu?

IHURREKO ERRETAULA

Anonimoa. 1350 aldera. Egur polikromatua, erreztatua eta korlatua
191 x 250 cm. Santiago Apostoluaren parrokia, Ihurre. Araba



Ikonografia. Eszenak

Hau da eszenen hurrenkera kronologikoa: 10, 1, 6, 7, 3, 5, 2, 8, 4 eta 9

- 1 Bisitazioa:** Mariak Isabel lehengusina bisitatu du; Isabel ere haurdun dago eta jaioko den umea San Joan Bataiatzailea da.
- 2 Tenpluan aurkeztea:** jaiotza 40 egunera, Jesus Jerusalemgo tenplura eramanda apaiz batengana. San Josek bi usapal daramatza ofrenda gisa.
- 3 Errege Magoak Herodesekin:** Herodes gobernatzailerak galdeketa egiten die Errege Magoei, Jesus non jaio den jakin nahian.
- 4 Ama Birjinaren lokartzea:** Maria 12 apostoluek inguratuta hil zen. Jesus bere arima darama.
- 5 Errege Magoen adorazioa:** Errege Magoak zaldiz datoz Orientetik, opariekin. Meltxor zalditik jaitsi eta belaunikatu egin da Umea adoratzeko.
- 6 Jaiotza:** Jesus ukuiluan dago, mandoarekin eta idiarekin. Maria etzanda dago San Joseren eta emagin baten ondoan.
- 7 Artzainei egindako iragarpena:** aingeru batek Jesus jaio dela esaten die artzainei, umea adoratzera joan daitezten.
- 8 Errugabeen Hilketa:** Herodesek, Jesus hil nahian, bi urtetik beherako ume guztiak hiltzeko agindua eman zuen.
- 9 Koroatzea:** Zerura igo ostean, Semeak Ama Birjina koroatzen du. Horrela Zeruetako Erregina bihurtzen da.
- 10 Iragarpena:** San Gabriel goiaingeruak semea jaioko dela iragartzen dio Andre Mariari. San Jose eszena ikusten ari da.

KUXINA. Rodrigo Ximenez de Radaren hilobi ajuarra

Kuxin hau Toledoko artzapezpiku izan zen Rodrigo Ximenez de Radaren (Gares, Nafarroa, 1170 – Lyon, Frantzia, 1247) hilobi ajuarrekoa da.

Eragin handiko pertsonaia izan zen bere garaiko politikan, izan ere, Gaztelako Alfontso VIII.a erregearen konfiantzazko gizona izan zen, bai eta enbaxadore Europako gorteetan.

Ohikoa zenez, pertsonaia boteretsuak toki garrantzitsu eta esanguratsuetan ehortzen ziren. Ximenez de Radak idatzita utzi zuen bere nahia 1201. urtean, hain zuzen ere, Zistertar ordenako lehenengo monasterioan ehortz zezatela, Soriako Santa Maria de Huertako monasterioan.

XVI. mende hasieratik, hilobia hainbatetan ireki da, arrazoi erlijiosoengatik edo zientifikoengatik. 1558. urtean, bere gorpuzkiak toki garaiago batera eraman ziren, baina kuxina ahaztu zen. 1968. urtean ere ireki zuten, jantziak zaharberritu zirenean.



Hilkutxaren barrua 1968. urtean



Hilobia

Erdi Aroko hilobi-monumentuek defuntua egoera etzanean irudikatzen dute, bere estatusari dagozkion jantziekin. Barruan, defuntua jantzi, bitxi eta beste objektu ederrekin apaintzen zen.

Formalki, figurarekin batera zihoazen elementuen edertasuna eta bizitasuna ez zetozen bat gorputzaren eta aurpegieraren zurruntasunarekin (normalean begiak itxita), jada hilda dagoen pertsona bat deskribatuz.

Erdi Aroan, kuxinak objektu estimatuak ziren eta etxerako erabiltzeaz gain, erritu funerarioetan erabiltzen ziren: defuntuaren buru azpian jartzen ziren. Kuxin kopurua pertsonaiaren kategoriaren arabera zen, eta lau ere izaten ziren.

Arreta handiz eta material noblez egiten ziren, esate baterako, urrez eta zetaz. Kolore bizikoak eta dekorazio anitzekoak izaten ziren.

IKUSI ETA OHARTU

- Arreta handiz eginda daude: lihozko ehun baten gainean bordatu bidez egindako irudi batzuk daude, kolorezko zetazko hariekin, eta urrezko eta zilarezko hariekin.
- Hariak kolore bizietakoak dira: gorria, urdina, berdea, nabar iluna, urrea eta zilarra.
- Kuxina 1995. urtean zaharberritu zen eta ehunak txertatu behar izan zitzaizkion, hau da, ehun berria josi. Bereiz ditzakezu jatorrizko zatiak eta zati berriak?

KONPARATU ETA IKERTU

- Bilatu erakusketako artelanetan dauden beste kuxin batzuk eta ohar zaitez, zertarako erabili dira kuxin horiek?, norenak dira?, pertsonaia boteretsuak al dira?, zein forma eta dekorazio dute?
- Beste eliza batzuetako hilobi-monumentuetan ere bila ditzakezu.
- Gaztelaniako «*almohadón*» hitza arabiarreko «*al-mujadda*» hitzetik dator, hau da, masaila apoiatzeko tokia. Iker ezazu zein presentzia zuen arabiar munduak Iberiar Penintsulan Erdi Aroan.

KUXINA. Tailer anglonormandiarrak. 1247a baino lehen. Lihoa zetan eta zilarrezko eta urrezko hari bihurrikatuan bordatua. 42 x 42 cm. Santa Maria de Huertako monasterioa. Soria

Hiru inskripzio zeharkatzen dute ertza eta barruko gurutzea. Letra horri *lonbar-diarra* esaten zaio eta asko erabiltzen zen Ingalaterran XIII. mendean

Lehenengo inskripzioak zentzu erlijioso du, AVE MARÍA da, latinez idatzita

Bigarren inskripzioa frantsesez dago eta juglaren poesiaren bertso oso famatu batzuk dira: «*Amodio prenda bat naiz, ez nazazu inoiz eman; asko maitatzen duenak nekez ahazten du. Ez dut inoiz esaten nondik natorren hona*»

48 lis-lore daude, batzuk urrean beste batzuk zilarrean. Hutsuneak betetzeko eran jarrita daude

32 armarriek diseinu soila dute eta Ingalaterra eta Normandiako famili garrantzitsuenen armarriak dira. Dekoratzeko helburua dute, eta armarri eta zaldunen munduarekiko zaleatasuna islatzen dute

Beste aldean hirugarren inskripzioa dago, maitasun poemak dira, maitasun adeitsua hizpide hartuta: «*Bedeinkatua egin ninduen, joatean errepikatu baitzidan: burua nire gainean pausatzen duenak, maitasun leiala izango du. Adiskide: zure izena ezkutan gorde dadila, maitasun pozez naiz. Pentsatu nigan, nik zukan pentsatzen dut; izan dadila gure artean, orain, maitasuna leiala*»



Kuxinarekin batera, ajuarrean ikus daitezkeen beste jantziak artzapezpikuari dagozkio



Mitra



Dalmatika



Eskularruak



Alkorkeak

CABELLOKO AMA BIRJINAREN ERLIKIA-ONTZIA

Cabelloko Andre Mariaren erlikia-ontzia Pedro Gomez Barroso Avignongo kardinalak agindu zuen, 1331 eta 1340 artean. Pertsonaia garrantzitsu horrek bere arreba Sanchari oparitu zion pieza. Sancha Fernan Perez de Aialaren ama eta Pedro Lopez de Aiala Kantzilerraren amona zen.

Nobleziak monasterioak fundatu ohi zituen, botere sinbolo gisa eta helburu erlijioso-funeraioekin. Kardinalak Avignonen egin bezala, Fernan Perez de Aialak moja domingotarren monasterioa fundatu zuen Kexaan.

1378. urtetik, Cabelloko Ama Birjinaren erlikia-ontzia Kexaako Monasterioari lotuta dago, Fernanek monasterioari eman ziolako dohaintzan fundatu zenean, eta han egon da gaur arte. Bere testamenduan zera irakur dezakegu:

«...las joyas y ornamentos que yo di al dicho Monasterio de Quixana (...) vna imagen de Santa Maria de oro y tiene en la cabeza un cabello de Santa Maria y esta en su tabernáculo de plata dorado y esmaltado que pesa 14 marcos...»



Kexaako mojak erlikia-ontziarekin

Aita Santuaren gorteak Erroma utzi zuen, eta Avignonerara joan zen 1309 eta 1378 artean, arrazoi politikoak zirela medio. Gorte horrek pertsonaia ugari biltzen zuen kardinalen eta elizgizonen artean, eta horiek jauregietan bizi ziren zerbitzariez inguratuta. Abokatuak, medikuak, aholkulariak eta abar ere bazituzten.

Garai honetan luxua eta fastuositatea ziren nagusi Aita Santuaren inguruan, eta hiria garaiko zentro artistiko garrantzitsuenetakoa bihurtu zen. Hara joan ziren italiar eta frantses artista ugari.

Erlikiak pertsona santuen gorputz atalak edo horienak izan ziren objektuak dira, esate baterako, hezurak, ileak, jantziak... Erlikiak beneratu egiten dira, eta Erdi Aroan garrantzia handia zuten, horregatik ohikoa zen horiek sartzeko kutxak edo objektuak egitea: erlikia-ontziak.

Batez ere elizetan egoten ziren. Zenbat eta erlikia gehiago, are eta garrantzitsuagoa zen tokia. Familia boteretsuek ere erlikia-ontziak zituzten luxuzko objektu gisa.

IKUSI ETA OHARTU

- Sarritan erlikia-ontziek arkitektura forma dute baina miniaturan. Kasu honetan elementu gotikoak ikus ditzakegu: arku zorrotzak, gailurreriak, kuadrifolioak...
- Figuren formak naturalistak dira, benetako egoerak deskribatzen dituzte, tolesturak leunak dira eta jarrerak atseginak.
- Objektu liturgikoak material nobleekin egiten ziren, kasu honetan urreztatutako zilarra da. Haitz kristala eta esmaltea ere badago.

KONPARATU ETA IKERTU

- Konpara ezazu erlikia-ontzi hau *Frantziako Felipe V.aren eta Borgoinako Juanaren erlikia-ontziarekin* (Sevillako katedraletik dator), zein antzekotasun eta desberdintasuna aurki dezakezu?
- Bilatu beste erlikia-ontzi batzuk erakusketan edo Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoan, zein erlikia daramate?
- Gaur egun egiten da erlikia-ontzirik?, badago erlikia-ontzirik elizetan?, horien garrantzia berdina da XIV. mendean eta gaur egun?

CABELLOKO AMA BIRJINAREN ERLIKIA-ONTZIA. Avignongo tailerra (Frantzia)

1331-1340. Zilar urreztatua, esmaltea eta haitz kristala. 40 x 22 cm

Kexaako San Joan Bataiatzailearen monasterioa



Buruan erlikia bat du: Ama Birjinaren ilearen adats bat

Gailurreria

Erlikia-ontziak tenplete itxura du, barruan Ama Birjinaren imajina daramala; atexka batzuekin ixten da

Eszenen atzean santuen 21 erlikia daude. Izena frantsesez eta letra gotikoan idatzita daramate



Ama Birjina *Maria Lactans* motakoa da. Eserita dago eta bularra eskaintzen dio Umeari, ama batek bezala. Amaren belaunean eserita, umeak eskua altxatuz erantzuten dio

Kuadrifolioa

AUIG Avignongo marka; esan nahi du hiri horretan zegoen zilargin tailer batean egin zela

Gaztela eta Leongo armarrria. Kardinala leiala zitzaien Gaztelako errege-erreginei

Barroso familiaren armarrria: urrez eta urdinez faxatua, bost lehoi erpekarirekin

Atexketan Ama Birjinaren Bizitzaren eszenak aurki ditzakegu



Iragarpena



Bisitazioa



Jaiotza



Errege Magoen adorazioa



Tenpluan Aurkeztea

ALFONTSO XI.AREN PRIBILEGIO ERRODATUA

Arriagako Ituna edo Borondatezko Entrega

Agiri hau Gaztelako Alfontso XI.a erregeak eman zuen 1332. urtean eta Arriagako Kofradiari zuzenduta dago, hau da, Arabako jaun feudalen elkarteari.

Itun bat da eta horren bitartez Kofradia desegin egin zen eta bere jaun eskubideei uko egin zien, Gaztelako koroan sartzeko. Hala ere, pribilegio batzuk mantendu zituzten, esate baterako, zergarik ez ordaintzea edo basoen aprobetxamendua izatea.

Agiri zahar hori hainbat agiritegitan egon izan da urte hauetan. 1463. urtean, kutxeta batean zegoen gaur egun existitzen ez den Gasteizeko San Frantzisko komentuan, eta geroago Arabako Batzar Nagusietako agiritegira eraman zen.



Araba Gaztelari borondatez batu zitzaioneko
Gregorio Hombrados, 1947
Arabako Arte Ederren Museoa

Pribilegioak agiri ofizialak ziren eta erregeak sinatzen zituen esku-bideak emateko edo berrestek. Beste edozein agiri ofizialek bezala, egitura finkoa du. *Protokoloan* (1) Jainkoa inbokatzen da, eta emailea eta hartzailea aurkezten dira. *Atalean* (2) arrazoiak eta hitzarmena azaltzen dira. Bukatzeko, *eskatokoloa* (3) data eta tokiarekin, eta *validatioa* (4) sinadurekin.

Pribilegioa errege funtzionario batek idazten zuen, eskribauak,

baina koloretako dekorazioa espezialistei agintzen zitzaien.

Erabilitako letra mota minuskula kaligrafikoa edo «pribilegio letra» deitu izan zaiona da, horixe erabili baitzen XIII. mendeko pribilegio guztietan. Letra garbia, argia eta oso zaindua da.

IKUSI ETA OHARTU

- Tinten koloreak biziak dira: gorria, urdina... landare eta mineral jatorrikoak dira. Antzara-lumekin idazten zen, horiek lehortu eta zorroztu ondoren.
- Euskarria pergaminoa da: arkume, txahal edo beste animalia baten baten larrua, prestaketa prozesu luze bat izan ondoren.
- Testu lerroak oso zuzenak dira, eskribauak lerro fin-fin batzuk egin zituelako zuzen idazteko (gero ezabatu egin zituen).

KONPARATU ETA IKERTU

- Erakusketan, Alfontso X.a «Jakitunak» emandako beste pribilegio errodatu bat dago, badarama zigilu errodatu-rik?, zein antz dute?
- Erakusketan hainbat agiri mota dago, sailkatuko zenituzke formatuaren arabera (liburua, orri soltea...)?, zein materialez eginda daude?

ALFONTSO XI.AREN PRIBILEGIO ERRODATUA

Gasteiz, 1332ko apirilaren 2a. Pergamino gaineko tinta. Berunezko zigilua
71 x 52,5 cm. Arabako Lurralde Historikoko Agiritegia. Sig.: DH 262/47

KRISMOIA. Kristoren anagrama da, eta bere izenaren lehenengo bi letrekin (grekoz) osatzen da: **X** (ji) eta **P** (ro). Behean **S** bat dago, Espiritu Santuarena, eta alboetan alfa **Α** eta omega **Ω**, gauza guztien hasiera eta amaiera, Jainkoaren eternitatearen alusio gisa.

Gutun hau **pribilegio errodatua** da, erregeak emaniko agiri juridiko bat. Izen hori du zigiluak gurpil itxura duelako.

Gaztela eta Leongo errege-erreginek eman zuten pribilegioa 1312 eta 1350 artean. Alfontso XI.a «Mendekaria» eta Portugalgo Maria dira

Lau zutabetan agiria sinatu duten pertsonen izenak agertzen dira. Goi nobleziako pertsonaiak, artzapezpikuak, militarak eta abar dira

Efe luze bi, bata gorria eta bestea urdina, «firma» esan nahi dute eta dekoratiboak dira

Erregearen zigilu «errodatua»; horrela esaten zaio gurpil itxura duelako. Gaztela eta Leongo armarría, eta Alfontsoaren eta agiriaren ziurtatzen duten erregearen goi karguen izenak daramatza: alferiza eta maiordomoa

Berunezko zigilu bat dago zintzilic agiritik. Errege zigilua da, erregearen armekin, eta agiriaren legezatzeko balio du

- (5) *Fecho el privilegio en Bitoria dos días de abril en era de mill et trezientos et setenta annos*
Data horri 38 urte kendu behar zaizkio, garai horretan egutegia desberdina zelako eta ez zelako hasten Kristoren jaiotzatik. Benetako data 1332ko apirilaren 2a da

LIBRO RIMADO DE PALACIO. Pedro Lopez de Aiala

Rimado de Palacio Pedro Lopez de Aialak urteetan idatzitako eta bizitzaren azken unean liburu batean bildutako poema multzo bat da.

Gaur egun, ez dugu berak idatzitako originalik. Ale hau XV. mendeko kopia da, eta zaharrena da, El Escorialeko Bibliotekan gorderiko beste liburu batekin batera.

Kantzilerrak Kronikak ere idatzi zituen (Pedro I.a, Enrike II.a, Juan I.a eta Enrike III.aren erreinaldien gertakari historikoen narrazioak), eta Tito Livio eta Boecio bezalako egile klasikoak itzuli zituen, bai eta San Gregorio eta Sevillako Isidoro.

Rimado de Palacio obra pertsonala da, egilearen pentsamoldea agerian uzten duten poema subjektiboak direlako.

Hainbat gai jorratzen du: erlijiosoak, moralak, politikoak, sozialak... Ama Birjinari egindako poemak, abestiak, aitortzak, hamar mandamenduei egindako komentarioak, estamentu sozial eta politikoen gaineko deskripzioak, justizia, gerra, bertute, bekatu eta abarren gaineko poemak...



Kantzilerra bere obra San Gregoriori ematen

Erdi Aroan, liburuak eskuizkribuak ziren, hau da, eskuz idatzita zeuden ez zegoelako inprimategirik.

Literatura eskribauek egiten zituzten kopien bitartez zabaltzen zen.

Monasterioetan atontzen ziren aretoetan (*scriptorium*) kopiatzen ziren liburu gehienak.

Garaiko literaturan era bi zeuden idazteko: *Klezia-poesia* eta *Juglare-poesia*.

Lehenengoa poesia kultura da, elizgizonek eta nobleek sortutakoa; forma konplexuak eta hizkera kultura erabiltzen ditu. Cuaderna vian idazten zuten.

Bigarrena herrikoa eta soila da, ondo pasazteko eta juglareek boz gora errezitatzeke egindakoa.

IKUSI ETA OHARTUE

- Tokia eta denbora aurreratzearren, hitz batzuk laburduraz idazten ziren. nro = nuestro, q = que, ot^o = otro, qen = quien.
- Bi koloretako tinta dago. Marroia bertsoetarako erabiltzen da eta gorria dekoraziorako.
- Eskuz idatzitako agiria izaeran, letra bakoitzaren trazuak desberdinak dira. Gainera, hitz batzuk beste batzuk baino tinta gehiagorekin daude.

KONPARATU ETA IKERTU

- Bilatu beste liburu eta agiri batzuk erakusketan, zein forma dute?, zein letra dute?, irakur dezakezu?
- Bilatu *Juglare-poesiaren* adibideren bat eta konpara ezazu Rimado lanarekin, zein da gaia?, nolakoak dira estrofa, luzeagoak edo laburragoak? Konta itzazu bertsoen silabak.
- Konpara ezazu Erdi Aroko poesia gaur egungo poesiarekin, gaur egun zorrotasun formal berarekin idazten al da?, zer deritzezu gaiei?

LIBRO RIMADO DE PALACIO. XV. mendea. Paper gaineko tinta. 225 x 150 x 30 mm. 315 mm irekita. 140 o. Espainiako Biblioteka Nazionalea. Madril. Signatura: Mss 4055

JHS Jesusen izenaren laburdura da grekoz. Liburua hasterakoan Jainkoa inbokatzen da, bere bedeinkapena eman dezan.

Liburu hau poema multzo bat da, gehienbat **cuaderna vian** idatzitakoak. Literatur forma horrek estrofa kopuru mugagabea du

Lehenengo letra handiagoa da, eta dekoratiboak diren ikur gorri batzuk ditu


Letra gotikoa da, XV. mendekoa, eta XIV. mendeko gaztelanian idatzita dago

Estrofa bakoitzak 4 bertso ditu

Bertso bakoitzak 14 silaba ditu. Bertso **alejandrinoak** dira

Bertso bakoitzak 7 silabako 2 **hemistikio** ditu. Lerro edo puntu batekin banatzen dira

Errima **kontsonante** dute, azentudun azken silabatik hasita letra guztiak berdinak direlako: *amor merescedor mejor pecador*



El pecado de Adán=7* / n(uest)ro padre p(ri)mero=7 7+7=14
 Nos trae obligado / a pecar de ligero
 Por ende yo señor / la tu merçed espero
 Que tu eres juez / justo e verdadero

*silaba 1 gehitzen da, azken hitza aguda delako. Esdrújula balitz, kendu egingo litzaioke

KRISTOREN PASIOAREN TRIPTIKOA San Joan Bataiatzailearen monasterioa. Kexaa

Triptiko hau Pedro Lopez de Aialarena izan zen, eta baliteke Frantziako erregeak egindako oparia izatea hilobi-kapera dekoratzeko.

Gaiak adierazten du obrak helburu funerarioa duela: Kristoren Pasioa zazpi eszenatan antolatzen da; horiek bat datoz Zazpi Ordu kanonikoekin, hau da, otoitz egiten zen eguneko zazpi orduekin. Kasu honetan, otoitzak defuntuaren, hau da, Kantzilerraren eta familiaren, betiko atsedinari zuzenduta daude.

Baina txikia denez, aldare eramangarri bat ere izan zitekeen, jabeak bidaiatzen zuenean berarekin eraman ahal izateko. Hori ohikoa zen Europan, XIV. mendearen azkenetan.

1941. urtean, pintura hori esku pribatuetan geratu zen eta gaur arte zenbait bilduma partikularretan egon da.



Anastasisa edo Linbora jaistea

Erdi Aroan, Europako herrien arteko merkataritza etengabekoa zen. Herrialde bakoitzak bere merkaturgaiak esportatzen zituen, horien artean artelanak.

Ingalaterrak alabastroak esportatzen zituen, Herbeherek eta Alemaniak pinturak eta eskulturak, Al-Aldalusek ehunak, Frantziak marfilak eta Italiak zilargintzako objektuak.

Erregetzak, nobleziak eta elizak luxuzko objektu horiek erosten zituzten erabilera pribatua emateko, eta euren etxeak dekoratzeko edo hilobi-kaperak janzteko erabiltzen zituzten.

XIV. mendean, ohol gaineko tenple-pintura zen triptikoak egiteko gehien erabiltzen zen teknika piktorikoa.

Oholak (haritz edo intxaurrekoak)

arreta handiz aukeratzen ziren eta ezer egin baino lehen iztukuarekin prestatzen ziren. Gero inprimazioa ematen zitzaion (hainbat koloretakoa izaten zen olio kapa bat), eta gero islatu nahi zen motiboa marrazten zen. Marrazketaren gainean, tenplea ematen zen (kolore pigmentuak eta arrautza nahastuta) eta bukatzeko berniz babesle bat ematen zen.

IKUSI ETA OHARTU

- Koloreak oparoak eta biziak dira. Gorria, berdea eta urre kolorea nabarmentzen dira; baita, urdina, beltza, zuria eta marroia.
- Jantziak eta orrazkerak pintorearen garaikoak dira. Errepara iezaiezu erbinude kapen xehetasunei, kapela anitzei, ehun dekoratuei, oinetakoei, armadurei eta armei...
- Pertsonaiak eta objektuz betea dago. Bilatu: aingeru eta deabru bat bi arima daramatzatela; soldadu bat arkuarekin; txakur bat; burezur bat; kapela gorri bat luma zuri batekin; ehun garden bat.

KONPARATU ETA IKERTU

- Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoan Kristoren Pasioaren beste triptiko bat dago, zenbat eszena berdin dituzte?, bietatik zeinek du eszena gehien?
- Gaur egun herri batzuetan Kristoren Pasioa antzeztzen da Aste Santuan. Badakizu zein herritan?

KRISTOREN PASIOAREN TRIPTIKOA. Turingia edo Behe Saxoniako eskola. 1400 aldera
82,5 x 104,5 cm. Tenplea ohol gainean. Bilduma pribatua. Madril



Ikongrafia, eszenak: Izaera narratiboa du, denboran segida bat duten eszenak aurkezten direlako eta eszena horiek ziklo nagusiago bat egiten dutelako: Kristoren Pasioa

- 1 Harrapatzea:** Jesusek Judasen musua hartzen du eta harrapatu egiten dute. Pedrok belarria moztzen dio soldadu bati, baina Jesusek berriro jartzen dio.
- 2 Flagelazioa:** hiru borrarok Kristo kolpatzen dute zutabe bati lotuta. Pilatos bertan da.
- 3 Kalbariorako bidea:** Jesusek Kalbario mendira igotzen du, ortozik eta Gurutzearekin. Alboan Ama Birjina eta San Joan ditu negarrez.
- 4 Gurutziltzaketa:** Eszena nagusia da. Jesus gurutziltzatu egiten dute, bi lapurren ondoan, Dimas eta Gestas. Ama Birjina, ondoezik, San Joanen besoetan erortzen da; berarekin hiru Mariak daude. Stephaton izeneko soldadu batek ozpinetan bustitako esponja ematen dio edateko. Longinos izeneko soldadu batek lantza sartzen dio saihetsean hil dela ziurtatzeko. Zauritik isuritako odolak itsu bat osatzen du. Soldadu batzuk dadoetara zozketatzen dute Jesusen tunika. Gainerako pertsonaiak bidean zehar daude.
- 5 Gurutzetik jaistea:** Arimateako Josek Kristoren gorpua jaisten du eta Nikodemok iltzeak kentzen dizkio. Ama Birjina eta San Joan atsekabetuta daude.
- 6 Ehorzketa Santua:** Arimateako Josek eta Nikodemok gorpua hilobian sartzen dute. San Joanek Ama Birjina oratu eta amak semea besarkatzen du. Maria Magdalenak ontzi bat darama lurrinekin.
- 7 Anastasisa edo Linbora jaistea:** Jesus infernura jaisten da, ateak bota eta bekatugabeak askatzeko, Adan eta Evatik hasita.

KEXAAKO MULTZO MONUMENTALA



Kexaa Aiara haranaren bihotzean dago, Araba ipar-ekialdean. Toki estrategikoa izan zen, eta barrualdetik kostaldera zihoazen merkataritza bideen pasagune.

Multzo monumentalak Aiarako Jaurerriaren bihotza da, garai desberdinetan eraikitako eraikinez osatua. Obrarik garrantzitsuena Fernan Perez de Aialari eta bere seme Pedro Lopez Kantzilerrari zor zaie.



Monasterioa

Fernanek fundatu zuen 1378ko abenduaren 2an, moja domingotarrentzat. Ondasun ugariz hornitu zuen.

XVI. mendean sute bat izan zen monasterioan, eta hainbat aldiz zaharberitu da, garrantzitsuena XVIII. mendean. Gaur egun ere, moja domingotarrak daude monasterioan.

Jauregia

Fernan Perez de Aialaren eta Elvira Alvarez de Ceballosen bizileku izan zen. Oin-plano karratuko eta erdian patioa duen eraikina da. Gotorleku itxura du, kantoietan bi dorre dituelako. Jauregitik zuzen heltzen zen elizara.

Gaur egun, Aialatarrei buruzko erakusketa iraunkor bat dago ikusgai.



San Joan Bataiatzailearen eliza

XI. mendetik existitzen dela dakigu, baina gaur egungo eraikina geroagokoa da. Burualdea XVI. mendearen hasieran altxatu zen eta gainerakoa XVIII. mendean. Barruan, erretaula barrokoak eta Fernan Lopez de Aiala eta Maria de Sarmiento Kantzilerraren seme-alaben hilobiak daude.

Dorrea

Kantzilerrak altxatu zuen 1399. urtean, aurretik zegoen beste eraikin baten gainean. Eraikuntza mardula da, oin-plano zuzenak eta almenadun erremateekin. Bertan jarri zuen bere hilobi-kapera.

AIALATARREN HILOBI-KAPERA



Erretaula eta aldare frontala

1396. urtekoak dira eta ohol gaineko tenplean egin ziren bertako tailer batean. Jesusen eta Ama Birjinaren bizitzaren eszenak azaltzen dira, eta, gainera, hiru belaunaldi daude irudikatuta: Kantzilerra eta bere emaztea, seme-alabak eta bilobak. Obra inskripzio batek eta familia armariarik zeharkatzen dute.

Gaur egun Chicagoko Art Institutuan daude.




Fernan Perez de Aialaren eta Elvira Alvarez de Ceballosen hilobiak

Kantzilerraren gurasoen hilobiak monasterioko elizatik eraman ziren 1730. urteko konponketa lanetan.

Kantzilerraren eta bere familiaren ehorzlekua da; artelan ugariren integrazio gisa egin zen (arkitektura, eskultura, pintura eta urregintza), ideia bakar batekin: fundatzaileak hilezkortzeko asmoa.

ESTA : CAPILLA : MANDARON : FAZER : DON : PERO ; LOPES : SENOR : DE : AYALA : E DE SALVA : TIERRA : ET : CHANCELLER : MAYOR : DEL REY : ET : DONNA : LEONOR : DE : GUZMAN : SU MUGER : ANNO : DEL : NACIMIENTO : DEL : NUESTRO : SALVADOR : IHU XPO : DE : MILL : E : TRECIENTOS : E XC : E : IX : ANNOS



Fundazio-oroitarria



Cabelloko Ama Birjinaren erlikia-ontzia

Kapera presiditzen du eta deboziogai da.



Kantzilerraren eta Leonor de Guzmanen hilobia

Alabastrozkoa da eta Toledon egin zen Ferrand Gonzalezen tailerrean. Defuntuak idealizatuta eta formalki eskematizatuta daude. Kantzilerra militar baten erara jantzita dago eta emaztea jantzi eta bitxi ederrekin. Alboan txakurrak dituzte, senar-emazteen arteko fideltasunaren sinbolo gisa. Oinarrian medailoiak ditu, santu eta profeten irudiekin.

BIBLIOGRAFIA

Aiala Kantzileria [katalogoa]. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 2007

ECHEVERRÍA GOÑI, Pedro L. (zuz.). *Erretaulak = Retablos*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2001.

GARCÍA FERNÁNDEZ, Ernesto (koord.). *La tierra de Ayala: actas de las Jornadas de Estudios Históricos en conmemoración del 600 aniversario de la construcción de la Torre de Quejana*. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 2001.

GARCÍA, Michel. *Obra y personalidad del Canciller Ayala*. Madril: Alhambra, 1982.

LÓPEZ DE OCÁRIZ, José Javier. *Templo de Nuestra Señora de la Asunción. Tuesta*. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, Argitalpen Zerbitzua, 1986.

MELERO-MONEO, Marisa. «Retablo y frontal del convento de San Juan de Quejana en Álava (1396)». *Locvs Amoenus*, 5. zenbakia, 2000-2001, 35-51. or.

MUÑOZ PÁRRAGA, María del Carmen; Illana BANGO GARCÍA (koord.). *La Edad de un Reyno: Las encrucijadas de la corona y la diócesis de Pamplona* [katalogoa]. Iruñea: Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa, 2006.

PORTILLA VITORIA, Micaela Josefa. *Quejana, Solar de los Ayala*. Vitoria-Gasteiz: Diputación Foral de Álava, Departamento de Cultura y Euskera = Arabako Foru Aldundia, Kultura eta Euskara Saila, 1988.

PORTILLA VITORIA, Micaela Josefa. *Catálogo Monumental Diócesis de Vitoria: las vertientes cantábricas del Noroeste alavés. La ciudad de Orduña y sus aldeas*. Gasteizko Gotzaindegia eta Caja de Ahorros de Vitoria-Gasteizko Kutxaren Kultur Ekintza, 1988.

PORTILLA VITORIA, Micaela J.; et al. *Mirari: un pueblo al encuentro del arte = Herri bat artearen bila* [katalogoa]. Vitoria-Gasteiz: Diputación Foral de Álava = Arabako Foru Aldundia, 1989.

SILVA Y VERÁSTEGUI, M^a Soledad. «El tríptico gótico de la Pasión procedente del monasterio de Quejana». En: *La formación de Álava: 650 Aniversario del Pacto de Arriaga (1332-1982)*. Congreso de Estudios Históricos. Berriemateak, 2. liburukia. Vitoria-Gasteiz: Diputación Foral de Álava, Servicio de Publicaciones = Arabako Foru Aldundia, Argitalpen Zerbitzua, 1985, 921-932. or.

Vestiduras pontificales del Arzobispo Rodrigo Ximénez de Rada, siglo XIII: su estudio y restauración. Madril: Kultura Ministerioa, Arte Ederren eta Agiritegien Zuzendaritza Nagusia, Kultur Ondasunak Artatzeko eta Zaharberritzeko Institutua, 1995.

YARZA LUACES, Joaquín. *Vestiduras ricas: el monasterio de Las Huelgas y su época 1170-1340* [katalogoa]. Madril: Ondare Nazionalea, 2005.

Argitaratzailea

Arabako Foru Aldundia

Testuak

Itziar Aguinagalde López eta Aintzane Erkizia Martikorena

Argazkiak

Juan Quintas, Javier Agote, Jon Llanos, Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa, Isidro G. Bango, Heraclio Fournier Agiritegia, Arabako Arte Ederren Museoa, Arabako Lurralde Historikoko Agiritegia, Espainiako Biblioteka Nazionaleko Argazkigintzako Laborategia.

Ihs



En el nombre de Dios q̄ es vno yndit
padre suo esp̄u santa en simple vndit
iguales en la gloria eternal majestad
y los tres ayuntados en la Dmndat

El padre non es fecho ni de of engendrado
ni por otra materia de nngun criado
el engendrado del fijo su vno mudo amado
de los dos el esp̄u procede y uflamado

Es alta theologia sciencia muy estura
los señores maestros dela santa esptura
lo pueden dedarar oulo tienē en otra
y podria como simple enaz por aluana

Esta santa esptura aluante trece
en nra madre eynha fume mente tenēz
q̄en bien asi obrare podria seguro ser
y q̄en mal lo fisurez auer su de perdez

Esta vndit llamo con grant amor
que me q̄era ulez y ser merecedo y
de ordenar mi fazienda entodo lo mejor
que amy alma conphere q̄ vniuo p̄cedo

El p̄vado de adam. nro padre p̄mero
nos trae obligado a p̄car de tygero
por ende yo señoz la tu meo ad esp̄u
que tu eres iues. iusto y verdadero

Arabako
Foru Aldundia



Diputación
Foral de Alava

2007ko apirilarenaren 18tik uztaillaren 26ra
Andre Maria Sortzez Garbiaren katedrala
Cadena y Eleta, z/g. 01008 Vitoria-Gasteiz
www.cancillerayala.net

Ordutegia
Astelehenetan itxita
Astearretik larunbatera: 10:00-14:00
16:00-20:00
Igande eta jaiegunetan: 10:00-15:00